

Familia ugariak, bizipoza buruhausteen gaineratik





10-17

AURKIBIDEA

Iritzia Ane Urkola **3**

Elkarrizketa Mikel Elizegi,
futbol jokaldien aztertzailea **4-7**

Asteko Gaia Familia ugaria,
izateko modua **10-17**

Xiberutik Aitor Atxega **18-19**

Iritzia Asier Aierbe **20**

Iritzia Maider Barandiaran **21**

Elkarrizketa Habiko azkenaz,
Artola eta Gascon **25-29**



25-29



21



Azaleko irudia
M.G.

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana euskaraz

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Azaroaren 30ean kalera



**ANE URKOLA
AGIRREZABALA**
KAZETARIA

Pasa den martxoaren 8tik agendan gorritz markatuta daukagu azaroaren 30eko greba feminista orokorra, mugarri izateko anbizioa duen grebaren data.

Ez dira gutxi hilaren 30ean kalera ateratzeko arrazoiak -erresidentzietako pribatizazioak, zerbitzu publikoetako murrizketak, Atzeritartasun Lege arrazista, barne erregimena, langileen lan baldintza prekarioak- eta ez da makala aurrean dugun erronka ere: zaintza sistema publiko eta komunitarioa sortzea, herritar guztion zaintza eskubide kolektiboaren alde.

Euskal Herrian, zaintzara bideratutako zerbitzuak gero eta pribatizatuagoak daude eta, kasu askotan, horien kudeaketa enpresa pribatuen bidezkoa da; horrek langileen prekarizazioa eta erregularizaziorik eza, eta enpresa gutxi batzuen negozioa dakarte. Inork egin nahi ez dituen lanak emakumeen esku geratzen dira, feminizatuak eta prekarizatuak, eta ez dute ez aitortza sozialik, ez politikorik, ezta ekonomikorik ere.

Gure (mendebaldeko zurion) pribilegioak berrikusteko egunak ere izaten ari dira hauek, eta askotan etorri zaizkit burura galdera hauek. Nola eragiten die zaintzaileei zaintzen kate globalak? Zeintzuk dira kolpatuenak eta zapalduenak kate horretan? Zein arduratzen da mendebaldeko herritarrok egiten ez ditugun zaintzez? Zein baldintzatan dauzkagu gure etxeetan lan egiten ari diren zaintzaileak? Zein aitortza ematen diegu gure eskola, erresidentziak edota ospitaleak garbitzen dituzten garbitzaileei? Zeintzuk ari dira parte hartzen gure herrietako asanbladatan? Egun hauetan ere ezin ahaztu gure pribilegio zuriez eta greba egin ezingo dutenez.

Artikulu hau idazten ari naizela ikusi dut EAJren kartel bat, beren zaintza eredua «sendoa, eraldatzaileria, feminista eta komunitarioa» dela aipatzen duela. Horiek berak dira erresidentzietako zerbitzuak pribatizatzen ari direnak, osasungintza pribatua diruz puzten ari direnak, Tolosaldean ospitale publiko bat eraikitzeari uko egiten ari direnak... Zuriketa morea eta hainbat erakundek Euskal Herriko mugimendu feministaren diskurtsoa erosi nahi izana ere salatuko dugu azaroaren 30ean.

«Jakina, gizon, zuri ere egin dizugu kalera ateratzeko deia, zaintza ez delako emakumeoi dagokigun zerbait. Ezinbestekoa da zaintza lanak partekatzea, eta zuek ere zaintza lanen gaineko erantzukizuna hartzea»

Jakina, gizon, zuri ere egin dizugu kalera ateratzeko deia, zaintza ez delako emakumeoi dagokigun zerbait. Ezinbestekoa da zaintza lanak partekatzea, eta zuek ere zaintza lanen gaineko erantzukizuna hartzea.

Bizi guztia lanean aritu ondoren ia pentsiorik gabe gelditu diren emakume horiengatik guztiengatik egingo dut nik greba (besteak beste), eta zuk? Arrazoiak zernahi dela ere, kalean ikusiko dugu elkar. Zaintza sistema eraldatzea guztia eraldatzea delako.



«Partida asko ikusteko, eta futbolaz ikasteko aukera ematen du»

MIKEL ELIZEGI
FUTBOL ANALISTA

Informatikaria izanik, eta futbola hain gustuko duenez, analista bezala bi esparru horiek uztartzen ditu billabonatarrek.

Imanol Garcia Landa

Futbola oso gustuko du Mikel Elizegik (Villabona, 1978). Batetik, Errenteriako Hirugarren Mailako Touring taldearen analista da, eta horrez gain, Gipuzkoako Futbol Federazioan aritzen da entrenatzaile ikas-taroak antolatzen.

Zure lanetako bat futbol analista izatea da. Zehazki zer lan egiten du futbol analista batek?

Futbol analistaren helburua da talde tekniko batean egotea, entrenatzailearen menpe, eta nire kasuan arerioaren analisia egitea. Ni Touring taldearentzat

ari naiz lanean, eta bere aurkariak zein diren aztertzen dut, bere jokatzeko erak zeintzuk diren bilatzen ditut, eta gero informazioa pasatzen diot taldeari. Hirugarren Mailan dago Touring, eta maila horretan ia talde guztiek bilatzen dute analista lana egingo duen norbait. Touring Hirugarren Mailara igo zenean deitu zidaten, eta ordudanik nago beraiekin lanean.

Nola iritsi zinen analista izatera?

Ni bere garaian Billabona klubean entrenatzaile bezala sartu nintzen, eta hamar-hamabi urte pasa nituen han. Gero suertatu zen aukera bat Ordiziarekin, Hirugarren Mailara igo zenean: bi lagunak hartu zuten ardura, eta deitu egiten zidaten. Nire ogibidea informatikaria da, eta ordenagailuak gustuko izateaz gain, entrenatzaile prestakuntzako hiru tituluak ateratzen ari nintzenean, nire kabuz hasi nintzen gaia aztertzen. Eta Ordizia mailaz igotzerakoan, arlo horretarako deitu zidaten, beraiei lagundu eta bideo presaketan ere aritzeko. Hortik hasi nintzen mundu horretan, eta gero Azpeitira ere joan nintzen Lagun Onak taldera, bigarren entrenatzaile bezala. Hor ere analista rola betetzen nuen, eta hortik ateratzean Touring taldeko kirol zuzendaria nitaz gogoratu zen, eta orain bi urte hasi nintzen beraiekin. Kirol zuzendaritzan esku bat botatzen aritu nintzen, eta baita analista rola betetzen ere. Gaur egun, kirol zuzendaritzako lanak utzi ditut, baina entrenatzailearekin jarraitzen dut kontaktuan, eta analista lan hori egiten jarraitzen dut.

Ez dago, beraz, prestakuntza jakin bat analista izateko.

Ez dago titulu ofizialik, entrenatzailearenak dauden moduan. Badago master moduko bat Espainiako Federazioak ateratzen duena, baina nik ez dut oraingoz hori egin. Azken finean, analista titulurik ez dago, li-

zentziarik ez dagoelako. Baina argi dagoena da analista bezala aritzeko, teknologia menperatu behar duzula, eta beharrezkoa dela futbola ulertzea. Gure helburua da aurkariaren joko ildoak bilatzea; eta horiek bilatzeko, garrantzitsua da futbola ezagutzea.

Entrenatzaile lizentzia guztiak aterata dituzu. Horrek esan nahi du Lehen Mailako talde bat ere entrenatu dezakezula.

Bai, baina tituluak izatea errazena da, zailena faltako litzateke. Ikasketa maila aldetik prest egongo ginatke horrelako erronka bati aurre egiteko. Beste gauza bat da pertsonalki horrelako erronka bati aurre egiteko prest sentitzea.

Zehazki nola egiten duzu analista lana?

Mailara egokitzen gara, bakoitzak duen denboraren arabera. Lan horrek denbora dezente eskatzen du. Guk ez dugu egiten aurkariaren analisi sakon bat, ez daukagulako denborarik. Berez, hiruzpalau partida ikusi beharko genituzke analisi sakon hori egiteko, baina nire lanbidea ez da futbola, eta ez ditut eguneko 24 orduak futbolari eskaintzeko. Beraz, batez ere aurkaria bi aste lehenago ikustera joaten gara. Ni joaten naiz partida grabatzera, eta gero aste hori hartzen dut analisia prestatzeko, eta partida hori jokatu aurreko asteburuan entrenatzaileari nire lana pasatzen diot. Gero, berak astebete izaten du taldearekin batera prestatzeko partida, eta aurkari horren aurka nola jokatu nahi duen erabakitzeko.

Partidak irauten dituen 90 minutu horietatik, baloia mugimenduan 60 bat minutuan izaten da. Hortik ateratzen dugun bideoa, jokalariei erakusteko, zazpi edo zortzi minutukoa izaten da. Jokalariak minutu horietan erne egoten dira. Azken batean, beraiek jakin nahi dute asteburuan zein etorriko den beraien aurka jokatzera, eta nondik nora joan daitekeen partida.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

Zu ez zara erabaki horretan egoten?

Hori entrenatzaile bakoitzaren araberakoa izaten da. Batzuei gustatzen zaie analistak berak ematea aurkariaren gaineko informazioa, eta beste batzuek nahiago izaten dute haiek, partidako planarekin batera, azalpenak ematea. Aurten Touringeko kirol zuzendaritzatik ateratzea erabaki nuen, eta entrenatzailearekin bakarrik dut hartu-eman. Egia da partidetara joaten naizela, eta jokalaria ezagutzen ditudala; baina aurten, egoera aldatu egin da, eta nik entrenatzaileari pasatzen diot informazioa, eta gero berak ematen die jokalariei. Analistaren lana izaten da entrenatzaileari laguntzea informazio hori eskuratzeko, eta gero entrenatzaileak erabakitzen du hori nola kudeatu.

Partida bat grabatzera joaten zarenean, aurkariak badakite zein zaren?

Bai, badakite. Hirugarren Mailan zuzendari txartel batzuk daude, eta talde bakoitzak hogei bat ditu. Partida batera zoazenean, bost txartelek edo zein partaide sartu daiteke. Normalean partida batera joaten zarenean, erakusten duzu Touring-ekoa zarela. Gainera, grabatzera joaten garenean, kamera eta tripodea muntatzen dugu, eta nik ordenagailua ere er-

«Oraingoz, behintzat, analista bezala edo bigarren entrenatzaile bezala ikusten dut neure burua»

maten dut, bertan editatzen aritzen naizelako. Beraz, oso erraza da antzematea harmailetan analista.

Maila profesionalean analistak egotea ohikoa da, baita Hirugarren Mailan ere?

Normalean Hirugarren Mailan hasten da kontua. Gipuzkoako Ohorezko Mailan ez da profil hau ikusten, baina Hirugarren Mailako ia talde guztiek badute horrelako profil bat. Batzuetan, pertsona jakin bat lan horretarako ez badago ere, bigarren edo lehen entrenatzaileak egiten du lan hori. Maila horretan jokalariek askotan eskatzen dute.

Eta zehazki, aurkarien inguruko zer informazio ematen duzue?

Partida batean bilatzen duguna joko ildo orokorrak izaten dira. Adibidez, atezainak luze ateratzen duen baloia edo atzetik hasten diren jokatzen modu elaboratuago batean, zein diren jokalaria garrantzitsuenak eta gehien parte hartzen dutenak, eraso gehiago ezkerretik edo eskuinetik egiten duten... Gai orokorrak izaten dira, ez dugu egiten jokalaria bakoitzaren inguruko analisisa.

Analisiak partidarako zer-nolako garrantzia izan duen jakiten al duzu gerora?

Azken finean, ez asmatzeko arriskua badago partida

ATARIA jarrita Goferri
eta Urola Kostako
Hirza egunkaritan dion

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 130€ • Atarikideentzat: 65€
 Handia: 180€ • Atarikideentzat: 90€
 Eskertza: 80€ • Atarikideentzat: 40€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.



Elizegik erabiltzen dituen aparailuak partidak grabatzeko.

bateko analisia egiten duzun bakoitzean. Lau edo bost partida ikusiko bagenitu, gehiago asmatuko genuke. Baina taldeari bizpahiru ideia transmititzen saiatzen garenez, normalean gertatzen diren gauzak izaten dira. Egutegiak ere zeresana izaten du; ez baita gauza bera aurkariaren partida bat ikustea lehen postuetan dagoen talde baten aurka, edo beheko aldean dagoen beste baten aurka.

Zer gustatzen zaizu bereziki lan honetatik?

Partida asko ikusteko, eta futbolaz ikasteko aukera ematen du. Joko ildo jakin batera ez zarela ixten gehien gustatzen zaidana da; hau da, ez zaudela lotuta. Entrenatzaileok askotan horretara jotzen dugu: bakoitzak bere jokatzeko modua du edo bizpahiru ideia nagusi ditu. Kasu honetan bestalde, burua gehiago zabaltzea tokatzen da, eta ikustea planteamendu ezberdinen aurrean jendeak nola prestatzen dituen partidak, nola hartzen dituen erabakiak, nola aldatzen duen jokatzeko modua. Horrek ere nire entrenatzaile rolean burua zabaltu eta hobetzeko balio dit.

Gipuzkoako Futbol Federazioan ere aritzen zara lanean. Zertan?

Ikastaroak prestatzen ari nintzen azken urtean. Orduan, plataforma aldaketa bat izan zen, eta informatika aldetik esku bat botatzeko eskatu zidaten. Horrela hasi nintzen. Zuzendaritza aldaketa izan zenean, pertsona berri bat sartu zen zuzendari bezala, eta hark eskatu zidan entrenatzaile ikastaroak antolatzen laguntzeko. Gaur egun horretan jarduten dut.

Soilik antolakuntza lanetan aritzen zara edo klaseak ere ematen dituzu?

Klaseren bat ematen dut, gehienbat analisiari bideratuta daudenak. Baina batez ere ikastaroen egutegia osatzen dut, irakasleekin harremanetan egoten naiz, ikasleren batek arazorik badu horri erantzuna ematen diot... Esan daiteke ikasketa buru bezala aritzen naizela.

Jende askok egiten al ditu entrenatzaile ikastaroak?

Egia esan, sekulako lan karga dugu; gaur egun UEFA C deitzen zaio hasierako ikastaroari, eta hori Internet bitartez egiteko aukera dago, nahiz eta gero klase batzuk aurrez aurrekoak izan. Ikastaro horrek sekulako interesa pizten du, eta egun 200 ikasle inguru ditugu. Urtetik urtera uste baino jende gehiagok ematen du izena. Erantzuna ikusita, gustura ari gara lanean.

Aurrera begira zeure burua entrenatzaile bezala ikusten duzu?

Beti nago irekia edozein erronkari. Une honetan, nire rola atzeko lan horretara dago bideratuta gehienbat, eta ez lehen entrenatzaile lanari. Lehen entrenatzaile moduan, Billabonan izan nintzen, eta orain gutxi Allerrun (Lezo) egon nintzen Ohorezko Mailan. Harra beti hor dago. Ardura handia izaten da lehen entrenatzaile bezala aritzea, ordu gehiago eskatzen ditu, eta momentu honetan, itzalpeko lan horretan gustura nabil. Oraingoz, behintzat, analista bezala edo bigarren entrenatzaile bezala, ikusten dut neure burua.



Bali

Noaoak BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



saridunak

Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
vs
Caceres Patrimonio
de la H
partida ikusteko

Azaroak 19, igandea
17:00etan
Angulas Aguinaga
Arenan

• Ana Goikoetxea
(Elduain)



Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
vs
Club Ourense Baloncesto
partida ikusteko

Azaroak 24, ostirala
20:30ean
Angulas Aguinaga
Arenan

• Maider Lasa (Tolosa)

Saria eskuratzeko Ataria jarriko da zurekin harremanetan

Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu




Euskarazko bertsoaren estreinaldia

Euli Dantza
antzezlan

Azaroak 19
igandea
19:30ean
Villabonako
Gurean

• Jon Otegi (Anoeta)

Bi Atarikiderentzat launa sarrera ditugu



Txirri, Mirri eta
Txiribiton pailazo
taldeak eskainiko duen
Pailazo ikuskizuna

Azaroak 18
larunbata
17:00etan
Tolosako Leidorren

• Gorka Otxoa (Anoeta)
• Uxue Gorostazu (Berastegi)




Adinekoei
segurtasuna eta
irisgarritasuna
ematen dien soluzioa.

Egokitu zure sukaldea zure bizitzara

1.990€*
-tik hasita

Informazio gehiago:
www.solumobel.com
943 96 89 64

*Basic-pack eguneraketa.



altzari egokituen soluzio integralak



Tolosaldeko langabetuak kontratatzekeo diru laguntza

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren ebazpenetik eratorritako Lanbide-
ren baimenarekin, Tolosaldea Garatzen 318.615 euro-
ko diru laguntza eman zaio Tolosaldeko enpresa eta
erakundeek egindako kontratazioetarako.

Laguntza horien helburua laguntza ekonomikoa
ematea da, Tolosaldeko enpresek merkatu arruntean
Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda
dauden langabeen kontratazioa errazteko, dagoen
diru fondoa agortu arte. Gehienez 37 kontratu izan-
go dira diruz lagundutakoak. Kontratuak 2023ko
abenduaren 31rako eginda egon beharko dute, eta
kontratuak mugagabeak izan beharko dute, kasu
gehienetan.

Laguntza 8.000 eurokoa da lanaldi osoko kontratu
bakoitzeko. Enpresak jasoko duen laguntzaren azken
zenbatekoak ezin izango du gaintitu kontratatutako
pertsonek soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako
kostuen %75. Laguntza ordea ekital-
di publikoetako artista eta langile
tekniko eta osagarrientzako den ka-
suetan, iraupen mugatuko eta lanal-
di osoko sei hileko edo gehiagoko
lan-kontratu bakoitzeko, 6.000 eu-
rokoa izango da. Kolektibo haueta-
ko pertsonak kontratuz gero: DSBE-
aren titularrak edo onuradunak, 35
urtetik beherako pertsonak, luzaro-



ko langabeak, eta 55 urtetik gorako pertsonak lagun-
tzaren zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da lanaldi
osoko kontratu mugagabe bakoitzeko; eta 7.500 eu-
rokoa, berriz, ekitaldi publikoetako artisten eta langi-
le tekniko eta laguntzaileen lanaldi osoko eta iraupen
mugatuko kontratu bakoitzeko, baldin eta sei hilabe-
te edo gehiagokoa bada. Diru laguntzen zenbateko
guztiak %10 haziko dira, kontratuak
emakumeekin egiten direnean. Diru
laguntzaren amaierako zenbateko-
ak, igoera horiek aplikatzean, ez
dira izango enpresa kontratatzaile-
ak kontratatutako pertsonen urteko
soldata kostuen %100 baino handia-
goak, gizarte segurantzara kon-
tzeptu guztien zioz egindako koti-
zazioa barne.

ESKAERAK

• Tolosaldeko enpresek eskaera aurkezteko tokia.

Tolosalde Garatzeneko
bulegoan. Lehiberri Zentroan.
Bulegoa itxita izanez gero, korreo
elektronikoz egin ahal izango da
lan3@tolosaldea.eus helbidean.
Aurkezteko azken eguna 2024ko
urtarrilaren 15a izango da.

Haurrak adina ilusio

Hirukide Familia Ugarien Elkartek bere lanaren berri emango die Tolosaldeko familiei, hilaren 24an, Tolosako kultur etxean antolatu duen aurkezpen ekitaldian. Tolosaldean milatik gora dira; Amezketan, adibidez, lau haur dituzten bi familia daude gutxienez.



Hirukide Elkartek 2019n Bilbon egindako topaketako irudia. **HIRUKIDE**

Josu Artutxa Dorronsoro

Azaroaren 24an, ostiralean, aurkezpen ekitaldia egingo du Hirukidek, Euskal Autonomia Erkidegoko Familia Ugarien Federazioak, Tolosan, bertako eta inguruko herrietako familia ugariantzat. Hitzordua 17:30ean izango da kultur etxean (Trianguloa plaza, 1). Baina aurkezpenera joaterik ez duten guztiei ere emango zaie arreta, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik

17:00etara, leku berean. Bertara hurbiltzen diren familia guztiei emango diete aurrez aurreko arreta. Dokoia izango bada ere, hitzordua hartzen dutenek lehenetasuna izango dute. Horretarako, *Hirukide.com* webgunean dagoen galdetegi bat bete behar da.

Aurkezpenean eta egunean zehar egongo den arreta-puntuan, erakundearen zerbitzu eta jardueren

1.105

Tolosaldeko familia ugariak

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak uztaillean argitaratutako datuen arabera, gaur egun, 1.105 familia ugari daude Tolosaldean. EAEn 32.665 dira: Araban, 5.678, Bizkaian, 14.421, eta Gipuzkoan, 12.566.

berri emango dute, familia ugari-entzat Euskal Autonomia Erki-
degoan dauden eskubide, la-
guntza eta hobari publikoen in-
formazio zehatza eskainiko
dute, eta familiek dituzten za-
lantza, iradokizun eta errekla-
mazioei erantzuniko diete.

Ondorengo gaiak landuko di-
tuzte bertaratzen diren familie-
kin: familia ugaria izateagatik
dauden eskubideak, laguntzei,

hobariei eta baimenei buruzko zalantzak, Tolosalde-
an dauden laguntza eta deskontuak, bertako zein
gertuko familia ugarien egoera eta premiak, erakun-
dearen jardura, familien ekarpenak, eta azken urte-
ko berritasunak. Halaber, azken hilabeteotan eta ur-
teetan kolektibo honi zuzenduta izan diren berritasu-
nak azalduko dituzte, familia ugari askok ez
baitituzte ezagutzen.

Landuko dituzte gaien artean, seme-alabak hazte-
ko eta mantentzeko laguntza berriari buruzko berri-
kuntzak aurkeztuko ditu Hirukidek. Izan ere, EAEko
familia ugariarentzako laguntza berriak indarrean sar-
tzea aurreikusten dute. «Laguntza berri horiek aurre-
rapen positiboa eta beharrezkoa ekarriko diete fami-
lia ugariei; izan ere, hirugarren seme-alaba guztiek
edo ondorengoek, 3 urtetik 7 urtera bitartean, 100
euroko laguntza jasoko dute hilean», adierazi dute el-
kartetik.

8.300 familia baino gehiago

Hirukide Gobernu Kanpoko Erakunde apolitiko eta
akonfesionala da, Eusko Jaurlaritzak 2003. urtean
Onura Publikoko Elkarte gisa aitortua, bizitza politi-
ko, instituzional, sozial, mediatiko eta enpresarialeko
esparru guztietan kide ugariko familien eskubideen
alde lan egiteko helburua duena. 1999an sortu zen,

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzko-
ako elkarteak (Ausarki, Laster-
bide eta Liluraldi, hurrenez hu-
rren) batzearen ondorioz, eta
politika, instituzio, gizarte, ko-
munikabide, enpresa eta bizi-
tzaren arlo guztietan kolektibo
honen eskubideak defendatzea
du helburu.

Kide ugariko 8.300 familiak
baino gehiagok (45.000 bazki-
de inguruk) osatzen dute, eta
bazkide izateko bi baldintza

bete behar dira: Kide Ugariko Familia Titulua eduki-
tzea edo eduki izana eta Euskal Autonomia Erkide-
goan bizitzea. Egun, titulua indarrean duten familien
%30 baino gehiago Hirukideren barruan daude. «Si-
netsita gaude batasunetik indarra sortzen dela, eta
indarra da kide ugariko familiek behar duguna, gure
ahotsa entzunarazteko eta gure eskubideak errespe-
tarazteko», adierazi dute elkarteko ordezkariak.

Eskualdeko herri guztietan

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte
Politiketako Sailak uztaillean argitaratu zituen Euskal
Autonomia Erkidegoko familia ugarien ikasturte ho-
netako bigarren hiru hileko datuak. Zerrenda horietan
EAEn dagoen familia ugari kopurua zehazten da, ur-
tarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarte sortutako fa-
milia berrien datuekin eguneratuta.

Tolosaldean, 1.105 familia ugari daude (guztiak ez
dira Hirukideko kideak), herri guztietan banatuta; ba-
tzuk, aurten sortuak dira, beste batzuk, lehenetik ba-
zirenak, eta tartean badira familia ugaria izanik ere,
etxeko kide kopurua areagotzea erabaki dutenak.
Logikari jarraituz, Tolosan, Amasa-Villabonan eta
Ibarran daude gehienak, erdia baino gehiago; Balia-
rrain, Gaztelu eta Oresa dira familia ugari gutxien di-
tuzten eskualdeko herriak.



«Umeekin deskubritu dut zer den benetako maitasuna»

AINTZANE GARMENDIA

GOIKOETXEA-GARMENDIA FAMILIA UGARIKO AMA

24 urterekin izan zuen lehen umea Aintzane Garmendiak, eta orduan konturatu zen ama izateko jaio zela. Geroztik, familia handitzen joan dira, eta elkarrekin, talde sendo bat osatzea lortu dute, Amezketako Argia-Goena baserrian; 2024an helduko da bosgarren haurra.

Gaur egun, familia ugaria osatzen du Aintzane Garmendia amezketarrak, Iñaki Goikoetxea senarrarekin eta Joana, Peio, Itoitz eta Sara seme-alabekin batera. Bi urte besterik ez ditu gazteenak; zaharrenak, berriz, 11 urte ditu, eta etxeko bigarren ama balitz bezala zaintzen ditu txikiagoak. Hilabete batzuk barru, zaz-

pigarren senide bat helduko da Goikoetxea-Garmendia familiara.

Haurrak izan aurretik, argi zenuten bi baino gehiago izan nahi zenituztela, edo behintzat, bazenuten haur asko izateko nahia?

Nik 24 urte nituen, eta Iñakik, 23. Ez ginen haurretan

pentsatzen jarri, eta halabeharrez haurdun geratu nintzen. Guk erabakiz gero, ez dakit noiz izango genuen lehen haurra. Inolaz ere ez genuen pentsatzen hiru, lau edo gehiago izango genituenik. Nik garbi nuen ama gaztea izan nahi nuela, baina gertuko senide eta lagunak hurrekin ikusteak ez zidan interesa pizten.

Haurdun geratu nintzenean, urtebete pasatzoko erlazioa besterik ez genuen, eta bakoitza bere etxean bizi zen oraindik. Pisu batean bizitzen jarri ginen eta aurrera egitea erabaki genuen. Joana jaio zenean, ni ere berriz jaio nintzen; orduan jabetu nintzen ama izateko jaio nintzela. Bera jaio aurretik, egunen batean ama izango nintzela kontatzen nuen, baina ez nuen familia ugaria izateko ikaragarritzko ilusioa.

Zergatik familia ugaria?

Ama izateko sena ez zitzaidalako itzali. Garbi nuen bigarren haur bat nahi nuela, eta lehena gazte izan genuenez, bigarrena ere hala izatea erabaki genuen. Ezin nuen asimilatu 26 urterekin nire amatasun fasea amaitu zela, ez nituela haur gehiago izango. Peio jaio zenean, Iñakiri esan nion: «Esadazu ez dela horrelakorik biziko dudana azken aldia».

Nola kudeatzen da familia ugari bat?

Bikoteko kide batek ordutegirik ez izatean dago sekretua. Argi utzi nahi dugu agenda librerik ez dugula, igandetik igandea lan egiten dugu, eguzkitik eguzkiora. Iñaki ia erabat arduratzen da baserriaz eta harategiaz. Nire kasuan, hurrekin gehiago egoteko, baserriko jarduera jaisten dut, etxekoa areagotuz. Bi haur genituenean, bulego batean egiten nuen lan, eta orduan nahiko garbi nuen, horrela jarraituz gero, ez genituela haur gehiago izango.

Hala ere, umeek argi dute zerbait behar dutenean ama beti hor dagoela, baita aita ere, noski. Baina guk argi izan behar dugu beraiek gure beharra dutenean, egiten ari garen hori utz dezakegula, beraietaz arduratzeko. Hori da familia ugari bat izateko oinarritzko ezaugarrietako bat. Adibide bat jartzearen, oinez ikasi arte, haurrak norbaitekin egon behar du, eta prozesu hori izaten da gogorrena. Urtebete inguru horretan ia etengabe egon behar duzu berarekin. Ni, gainera, umeekin egon beharrekoa sentitzen naiz, eta hori dela eta, behin ere ez ditut hartzaindegian utzi.

Eta haur zaharrenek laguntzen dizuete etxeko lane-kin edota zaintzarekin?

Joanak, Peiok, Itoitzek ikaragarri laguntzen dute, eta beraientzat ikasketa bat da. Familia bat izateaz gain, talde bat gara; jakitun dira bizimodua aurrera ateratzeko ezinbestekoa dela denon parte hartzea, eta gainera, oso ona da beraien artean duten harremana. Dugun bizimoduarekin, gainera, baserria edo harategia dela, etxetik kanpo ere lan handia izaten dugu, eta hori ikusita, hurrek diziplina eta esku-hartze handia dute. Oraindik umeak badira ere, erantzukizun batzuk dituzte jada, hori bai, pisu handiegia ezarri gabe.

Familia ugaria izateak, ekonomikoki osasuntsu ego- tea eskatzen du?

Alderdi ekonomikoari dagokionez, momentuz gauza gutxiarekin konformatzen garen horietakoak gara, eta beraz, ondo moldatzen gara. Familia ugariaren txartela daukagu, eta horri esker, zenbait abantaila eta deskontu izaten ditugu denda batzuetan. Gainera, hileroko diru kopuru bat jasotzen dugu eta ongi etorria izaten da. Hala ere, laguntzengatik ez nuke inor ani-

matuko familia ugaria izatera, gastuak beti handiagoak izaten direlako.

Zer izaten da egunerokoan gauza konplexuena?

Zerbait aipatzeagatik, eskolaz kanpoko jardueren ordutegiarekin bizimodua antolatzea. Gure haurren kasuan, pilotan ibiltzen dira denak, eta asteburu batzuetan, ordu berean bi herri desberdinetan izaten dituzte partidak. Astean badira zenbait egun erotuta ibiltzen garenak.

Zuei zer eman dizue familia ugaria izateak?

Niretzako nire bizitza da. Beldur apur bat eduki izan dut orain arte; izan ere, askotan pentsatu izan dut honakoa: «Helduagoak direnean eta etxetik joaten dire-

«Joana jaio zenean, ni ere berriz jaio nintzen; orduan jabetu nintzen ama izateko jaio nintzela»

nean, ez dakit bizitzen jakingo dudan». Oraingoz, hamaika urte daramatzat inozentzia horrekin. Gaur egun ez dut oroitzen nolakoa zen umeak izan aurreko Aintzane, eta ez dakit nolakoa izango den umeak hazi ondorengoak.

Batzuetan gerta liteke buruan munduko arazo handiena izatea, baina haur bat bere irribarrearekin etortzen zaizunean, arazo guztiak ahazten zaizkizu. Umeekin deskubritu dut zer den benetako maitasuna, ez gurasoekin, ezta bikotearekin ere. Niri gustatuko litzaidake hau behin ere ez amaitzea, baina amaituko da, noski. Bosgarren haurra azkena izango da gure familian.





«Orain ez genuke asmatuko haurrik gabe bizitzen»

BIXENTE GOROSTIDI ETA OIHANA OIARTZABAL GOROSTIDI-OIARTZABAL FAMILIAKO GURASOAK

Ezin zoriontsuago bizi da Amezketan Gorostidi-Oiartzabal sendia. Gurasoek betidanik gustuko izan dituzte haurrak, eta argi zuten bi baino gehiago izan nahi zituztela; gaur egun, lau seme dituzte.

Ametz, Oihan, Aiur eta Eki amezketarrak Gorostidi-Oiartzabal familiako lau semeak dira. Zaharrenak 15 urte bete ditu aurten; gazteenak, berriz, 8. Bixente Gorostidi eta Oihana Oiartzabal dira gurasoak. «Adi-nean aurrera doaz, eta konturatzen ari gara zaharrenek jada ez gaituztela behar», aitortu dute.

Haurrak izan aurretik, argi zenuten bi baino gehiago izan nahi zenituztela?

Oihana Oiartzabal: Nik bai.

Bixente Gorostidi: Nik ahal izanez gero, haurrak izan nahi nituen, baina kopuruari ez nion erreparatzen. Hori bai, gutxienez bi nahi nituen.

Oiartzabal: Eta ahal bazuen, bost ere bai!

Gorostidi: Beno, hori hirugarrena jaio zenean pentsatu nuen. Horrelako ume politekin... [Barreak]

Oiartzabal: Nik ere, ahal bagenuen behintzat, eta dena ondo joanez gero, gutxienez hiru izan nahi nituen.

Betidanik gustuko izan dituzue haurrak, beraz.

Gorostidi: Bai, eta nik zorte handia izan nuen. Etxean hiru senide gara, eta beste biak ni baino gazteagoak dira. Bietan zaharrenarekin, urtebeteko aldea besterik ez dut; gazteenarekin, berriz, 10 urtekoa. Haurtzaroko eta nerabezaroko oroitzapen oso onak ditut; jostailu bat balitz bezala ibiltzen ginen gazteenarekin jolasean. Haren ondoren, gainera, gure auzoan beste hiru haur jaio ziren, eta horiekin ere jolasean ibiltzen ginen, ia gure haurrak balira bezala.

Oiartzabal: Nik Bixenteri argi esaten nion, haurrak izatea erabakiz gero, elkarren artean adin tarte txikiarekin jaiotzea nahi nuela. Ni baino zaharragoa den neba bat dut, baina ni naiz hiru ahizpetan zaharrena. Guztiekin izan dut lotura oso ona, baina gehienbat nebarekin, bi urteko aldea besterik ez dugulako; ahizpa gazteena ni baino 10 urte gazteagoa da. Nire iritziz distantzia hori ez da guztiz lagungarria.

Zergatik familia ugaria? Zein izan zen arrazoia?

Biak: Ez zegoen arrazoirik, hain geunden gustura...

Oiartzabal: Ametz jaio zenean, lana uztea erabaki nuen. Musika irakaslea nintzen; trikitia jotzen erakusten aritzen nintzen. Zalantzak izan nituen, arrisku handiko erabakia zelako, baina Bixentek animatu ninduen, ardura osoa familiarengan hartzeko. Hala ere, bizitzan egin dudak inbertsio handiena izan da, eta orain ere erabaki bera hartuko nuke. 7 urte inguru egin nituen egoera horretan, eta nire bizitzako urterik politenak izan ziren. Hain urte onak izan ziren, lanera itzultzea asko kostatu zitzaidala. Lehen beste umore bat izaten nuen, eta orain nekatuago iristen naiz egunaren amaierara.

Amezketan bizi baginen ere, orduak eta orduak pasatzen genituen nire gurasoen baserrian Ametzekin.



Bai berarentzat, bai ondorengo semeentzat, baita guretzat ere, askatasun handiko tokia izan da, kezka eta arazo guztiez ahazteko. Gaur egun, korrika eta presaka bizi garen honetan, senideen arteko lotura eta horrek dakarren afektibitatea galdu dugu, eta hori oso garrantzitsua da.

Nola kudeatzen da familia ugari bat?

Oiartzabal: Behar-beharrezkoa da ekonomikoki ahalmena izatea, baina lehen esan dudana bezala, gurasoetako bat behintzat nahiko libre egotea ere bai.

Gorostidi: Nire kasuan, laneko ordutegiarekin, malgutasun handia izan dut beti, eta horrek asko lagundu izan gaitu. Erreleboka lanean ariko banintz, ez litzake hain erraza izango, eta biok lanean aritu izan bagina, ez zait iruditzen hiru edo lau haur izateko gai izango ginenik.

Oiartzabal: Zorte handia izan dugu, eta laguntza handia eman ahal izan diogu elkarri umeen zaintzarako.

Esan duzueenez, umeak izan aurretik ekonomikoki osasuntsu egotea ezinbestekoa da.

Oiartzabal: Bai. Hala ere, argi utzi nahi dut gu ez garela anbizio handiko pertsonak, eta gutxirekin konformatzen gara. Hala ere, umeak hazi ahala, arropa erosterako orduan nabaritzen da gorakada gastuan.

Gorostidi: Argi daukat umeak izan ez bagenitu, gure aisialdian izango genituela gastuak, eta aste batzuetan, orain izaten ditugun gastuak baino handiagoak izango lirateke. Niri pertsonalki, gastuek beldur handiagoa ematen didate hemendik aurrera, unibertsitate-ikasketak direla, kanpoan bizi beharra dutela...

Eta gastu horiei aurre egiteko izaten al duzue abantaila edo laguntzarik?

Oiartzabal: Jaio zirenean, Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzak jasotzen genituen, eta ongi etorriak ziren, noski. Hala ere, gaur egun, ditugun diru-sarrerak direla eta, eskolan esaterako, ez digute bekarik ematen.

Gorostidi: Denda batzuetan deskontuak izateko aukera dugu, baina bestela, ezer ez. Baina familia ugaria izateko arrazoia ez ziren la-

«Askotan esaten diogu elkarri, baita gauetan lotara joatean, sekulako haurrak ditugula»

OIHANA OIARTZABAL

guntzak izan, pizgarri ekonomikoa baino zerbait gehiago behar da horretarako.

Eta nolakoa izan da eta izaten ari da haurren arteko harremana? Zaharrenek gazteenak zaintzen lagundu izan dizute?

Biak: Betiko haserrealdiren bat izan dute tarteka, baita guk ere beraiekin, baina orokorrean ez dugu inolako arazorik izan.

Gorostidi: Harreman ikaragarria dute elkarren artean, eta alde horretatik, zorte handia izan dugu.

Oiartzabal: Bixentek eta biok askotan esaten diogu elkarri, baita gauetan lotara joatean, sekulako haurrak ditugula. Akaso harrotasunez ari naizela dirudi, baina egia da.

Gorostidi: Gozamen hutsa izan dira orain arte, eta orain ere hala dira.

Oiartzabal: Aitona-amonekin ere lotura handia dute, eta niretzako hori oso garrantzitsua da. Beste errespetu bat diete, eta laguntzeko ere jarrera desberdin bat dute. Nire ustez, baserriko bizimodua izateak eragina izan du, eta esango nuke gure haurrek badi-tuztela gaur egungo zenbait balore. Familiarekiko lotura handia dute, baina aldi berean, lagunekin egotea ere oso gustuko dute.

Zer eman dizue familia ugaria izateak?

Gorostidi: Poza, handia gainera. Ederra da etxean beti giro polita izatea, eta haurrak elkarren artean zeinen ondo moldatzen diren ikustea. Askotan pentsatu eta

esan izan diogu elkarri honakoa: «Orain umerik izan ez bagenu, ene, ene, ene...». Senideekin uzten ditugunean eta bakarrik geratzen garenean, askok esaten digute aprobetxatzeko. Hala ere, arratsaldea heltzen denerako beraien falta sumatzen dugu. Orain ez genuke asmatuko umerik gabe bizitzen.

«Biok lanean aritu izan bagina, ez zait iruditzen hiru edo lau haur izateko gai izango ginenik»

BIXENTE GOROSTIDI



AITOR ATXEGA
MANEX BAT

Ikaskoli.eus

Bili naiz zalantza batean oraingo honetan: honen gainean idatziko dut, beste hura aipatzea egokia izan daiteke... Begiratu dut gaur artean zeri buruz aritu naizen, eta gauza batek harritu nau amifiñi bat: ez dut Zuberoari buruz, orokorrean, inoiz idatzi! Hori aukera bat zen, eta beste bat, hain garaikidea den sasoian, sasoikoari heltzea. Manexak gutxi baitu originaletik, bigarrena aukeratu du.

Ospakizun handiak izan dira aurten Zuberoa partean ikastolak direla-eta. Ikastola eta euskara esatea ia gauza bera da Zuberoan. Bi ikastola dira bertan: Eperra (Sohütakoa) eta Aloze (Basabürükoa). Eperra Ikastolak 50 urte bete ditu aurten, eta manexak aukera hau baliatu nahi izan du Ekaitz Mazustarekin biltzeko Maule-Lextarreko bazter batean. Ekaitz Mazusta, Eperra Ikastolako ikasle ohi, guraso eta Ikaskoli batzordeko partaide da.

Lehen esalditik dio hegoaldeko ikastola askoren antzera sortu zela Eperra: lokal ttipi bat, guraso-militantzia, desira, lana... Gogoan du Euskal Herriko bazter askotako elkartasuna izan zutela. Gaur egun Zuberoako ikastolen eskaintza 10-11 urterekin bukatzen da; euskaraz ikasten jarraitu nahi duenak Lartzabale-ara (Behe Nafarroa) joan beharra du. Hau ez da aukera erosoena, merkeena, gertukoena... Aitzitik, bi aldiz hausnartu beharrekoa.

75 ikasle dira Sohütan eta 35 Alozen. Denean bezala, Zuberoan ere gauzak aldatu egin dira, eta jende

asko joan da hiriburura bizitzera. Ondorioz, lehen ez bezala, Sohütako Ikastolako ikasleria erdia Maulekoa da. Hori bai, mauletar denak ez dira Eperran eskolaratuak; batzuek nolabaiteko B eredu bat hautatzen dute (eskola elebidunak), eta beste batzuek zuzenez eskola frantsesak hautatzen dituzte; berau da hautatuena Maule-Lextarren. Badu beraz oraindik zeregina euskararen erakarpenak...

Jarraian, sosa gaia azaldu da mahai gainean, gai astuna zalantzarik gabe paraje haietan. Hona hemen «nola sostengatzen da ikastola bat Zuberoan?» galderari, Ekaitz Mazustak emandako arrapostua: «Kostu handiena, irakasleen soldata, Seaskak bere gain hartzen du Hezkuntza Ministerioak onartzen dion



diru-zamarekin, beste zati bat Seaskak ipintzen du berak dituen gaitasun edo baliabideekin, eta beste bat, oro har egoitzarekin zerikusia duena, ikastolak berak ipintzen du antolatzen eta sortzen dituen dinamika eta ekimenen bidez.

Hauetako bat da *Ikaskoli* ekimena. Ekaitz Mazustak azaldu duenez, aurtan broman-broman 20. urtea beteko duen ekimena da. Zuberoako laborarien kalitatezko mozkinak jasotzen dira, eta saski batzuetan ipini. Ondoren, Euskal Herri osoan zehar saltzen dira Eguberrien aurretik. Manexak maiz egin du eguberriopari dotore hau! Azken urteetan 2.200 saski inguru ari omen dira saltzen. Bada zerbait! *Ikaskoli.eus* webgunea bisita dezakezue dinamika honen berri izateko.

Tolosaldea, Buruntzaldea eta Goierriko zenbait herriak lagun batzuek ekimen hau laguntzea erabaki genuen orain urte batzuk, jada urte mordo bat martxan daraman Usurbilgo taldearen babesean. Hasieran 600-700 euro biltzea lortzen genuen baina joan den urteko abenduan ia-ia 3.500 euro bildu genituen. Elkartasuna hitza aipatzen denean, Euskal Herria beti da nor!

Lerro hauek baliatu nahi ditu beraz manexak ekimen honen alde. Euskararen katea urra ez dadin, euskal hezkuntza geldi ez dadin, eta Zuberoako gurasoak abail ez daitezen, laguntza inoiz

[Ikaskolin] Zuberoako laborarien kalitatezko mozkinak jasotzen dira, eta saski batzuetan ipini



baino ongi etorriagoa izango da. Bi modutan eros ditzakezue Zuberoako produktu bikainez osaturiko saski hauek. Baga: *Ikaskoli.eus* webgunea horretarako ipinia dago propio. Biga: *atxega@buhameak.eus* helbidean gustu handiz informatuko zaitugu laguntza-ekimen honen inguruan. Nahi izatera idatzi Tolosaldeko gure taldera, eta geuk ekarriko dizkizugu saskiak etxeraino. Eperra Ikastolak saski bat oparitu dio ATARIA-ri eta honek zozkatu egingo du Eguberri aurretik. Erne izan eta baliatu aukera!

Elkartasuna Palestinarekin



ASIER AIERBE
GAZTE
LANGILEA

Asko dira azkenaldian Palestinarekin elkartasuna adierazten altxatako ahotsak, baina orokorrean, bi diskurtso ezberdin ari dira nagusitzen. Lehena, ezkerreko alderdi eta instituzio ezberdinak babesten ari direna, zeinak bi aldetako erasoak etetea, negoziaketara deia egin, eta Nazioarteko akordioak errespetatzea aldarrikatzen duen.

Diskurtso honek, bi bandoak berdintzen ditu, honen guztiaren kausa errealak albo batera utziz. Izan ere, Israelgo Estatua, bere sorreratik, palestinarren aurkako sarraskian eta beraien lurren okupazioan oinarritu da. Honen aurrean palestinar herriak, Israelgo Estatuari aurre egiteko erabaki ausarta hartu eta gero, zapaltzailea zapalduarekin berdintzen dute horrelako mezuek. Gainera, nazioarteko akordio eta negoziaketek erakutsi dute zein paper betetzen duten, Israelgo Estatuak inpunitate osoz jarraitu du bere prozesu zapaltzailea aurrera eramaten, eta Palestinako lurrak bereganatzen.

Kezkagarria da ordea, ezkerreko alderdi eta instituzio hauek elkartasunezko diskurtso hau zabaldu arren, influentzia erreala bilatzen duten espazioetan hartutako posizio eta irmotasun falta. Mendebaldeko herrialde guztiak posizionatu dira Israelgo Estatuaren alde, argi baitago, hauen interesak defendatzen dituela Israelek. Baina, Espainiako gobernuak sostengatzen duten alderdiek inbestidura momentua baliatu ordez presioa eragin eta Palestinar herriarekin elkartasun erreala praktikara eramateko, ez dute aurrerapausorik planteatu. Espainiako Estatuak Israelekin dituen harremanak puskatzeko presionatu ordez, ezkerreko gobernu bat baldintza gabe babestera mugatzen ari dira.

Hitzezko elkartasun hau paper bustian geratzen da azkenean, gero Israelgo Estatua armatzeko balio duten neurri eta aurrekontuak babesten ari bazara, horregatik, garrantzitsua da gertaeraren errelato zuzen bat zabaldu eta arduradun guztiak seinalatzea.

Hala ere, bada beste diskurtso bat babesten duen sektore bat, palestinar herriaren autodefentsa eskubidea babesten eta honekiko elkartasunez mobilizatzen ari dena. Palestinan bakea lortzeko irtenbide bakarra Israelgo Estatuaren desagertzea izango litzateke, eta horra bidean nire elkartasun eta babesa helarazi nahiko nieke lehen lerroan bizia arriskatzen ari diren guztiei. Aurrera palestinar erresistentzia!

«Hitzezko elkartasun hau paper bustian geratzen da azkenean, gero Israelgo Estatua armatzeko balio duten neurri eta aurrekontuak babesten ari bazara»

indar(t)SU



**MAIDER
BARANDIARAN**
NITIK GURA

Gaurko lerroetan bidaia luzexea-goia egingo dugu. Goazen nitik zura, zugandik barrena indar gehiagoz guragotzeko, alegia. Zuk ere, baduzulako GUretzeko aski indar. Indar(t)SU halakoa, irakurle hori!

Emakume bazara, jakin badakizu indarra zure larruan gordin-gordin probatu duzula, jasan. Ondorioz, baduzu beldurrez isildu behar izatearen kontra zer esan. Nola ez. Indarkeriaren aurkako armarik behinena, suzko hitza delako. ZUZkoa. Esatearen indarrak egiten du zu indar(t)SU.

25aren (emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren) ingurumarian hainbat egitarautan proposatu den ekitaldiak mahai-gaineratuta. Axaletik larrutik baino lasaiago ote den, bada.

Zer iruditzen solasaldiak bixigarri pixka batekin hasiko bagenitu? Piperrautsa izan ohi da osagai ezinbestekoa horretarako. Ea, adibidez..., hori da! Honek ez du huts egiten hautsak harrotzen hasteko: nola zertarako autodefentsa feminista tailerra? Alajaina! Egunero jasaten ditugun eraso sexisten aurrean erantzun bat emateko!

Emakumeon kontrako indarkeriaz dihardugunean, telebistan aipatzen diren emakumeen erailketa edo bortxaketak etortzen zaizkigu gogora. Hala ere, ekintza bortitz horiek izebergaren punta baino ez dira. Aitzitik, indarkeria matxistak hain nabarmenak

«Jarrera sexistak identifikatzea eta onartzea ere autodefentsa feminista, aktiboa eta iraultzailea delako. Ala? Zer diozu?»

Beldurrez isildu behar izan dugu, ordea, behin eta berriz. Isil-eremuetan, gorputza eta boterea gurtzatzearen ondorioz, beti da gogorra maskulinitatearen indarrak hitz egiten hastea. Hala ere, egin ezean, gaur eta hemen, emakume izatea feminitate eredugarriaren baitan bizitzea da; hau da, pertsona ez buru(jabe) eta gorputz jabe izatea.

Beraz, hitz egin dezagun jasandako nahiz eragindako indarkeriei buruz. Zer diozu? Gogorregia, ezta? Nahiz eta jakitun izan samurrago hasteak mikatz puntu gozoagoa ez diela zertan erantsi gordinak diren hizketagaiei, erraztu daiteke alabaina hainbat pintxo-potetako hizpidea. Nola? Esaterako, hilaren

ez diren eta sotilagoak diren moduak ere baditu menpekotasunak bere horretan irauteko. Neskalaguna/emaztea uneoro non eta norekin dagoen jakin nahi izatea, zein arropa edo norekin ibili behar duen esatea, debekuak, edota itxuragatik edo emakume izate hutsagatik iraintzea, kasu.

Badagokigu esan eremuan aritzea. Ahal den heinean, gainera, plaza txikian, eta gure hizkeran, hizkera kaletarrean, isilik dugun hori ateratzea gure ingurune hurbilean: etxean, harreman sexual nahiz afektiboetan, kolektiboetan... Jarrera sexistak identifikatzea eta onartzea ere autodefentsa feminista, aktiboa eta iraultzailea delako. Ala? Zer diozu?

AGENDA

OSTIRALA

AZAROAK 17

ADUNA

KULTUR ASTEA

18:30. Frontoian, *Oh-Pera* zirku eta umore ikuskizuna.

21:30. Txulobin, Euskal Herriko XV. Mus Txapelketa. Adunako kanporaketa, Euskal Herriko Mus Federazioak antolatuta.

ALEGIA

GARAGARDO AZOKA

19:00. Ate irekiera. Euskal herriko hamar artisau garagardo desberdin izango dira dastatzeko.

19:30. Musika jartzen: Zigor DZ.

21:00. Zahagiardoa.

23:00. Kontzertua

Onki Xin. 6 euro.

Jarraian. Zigor DZ.

ALKIZA

SANMARTINAK

19:00. *Ring* antzerki emanaldia, kultur etxean. Elena Arambarrik zuzenduta. Aforo mugatua. Kultur etxean.

ANOETA

ASANBLADA

18:00. A30eko Greba Orokorra Feministarako asanblada mistoa. Herriko norbanako eta eragile guztientzat irekita. Eragileen lokalean.

BELAUNTZA

TAILERRA

17:30-19:00. *Olentzero eta Mari Domingi* sortuz tailerra. 6-14 urte bitartekoentzat. Zorione Mendezek eskainita.

BERASTEGI

JARDUNALDIAK

Hobeki jardunaldiak 2023.

Hondakinen sortzez besteko ordainketa sistemak.

1. zatia. Sortzez besteko udal hondakin tasak

10:00. Sarrera eta ongi etorria.

10:15. Maria Calaf Form. Ingurumen fiskalitatean eta sortzez besteko ordainketa sistemetan aditua.

11:15. Ioritz Berra, Zaldibiako alkatea.

2. zatia. Mankomunitateek udalei kobratzerakoan jarraitu beharreko irizpideak eta kanona.

11:45. Xabier Urdangarin. Sanmarko mankomunitateko lehendakariorde eta Astigarragako alkatea.

12:15. Josep Maria Tost i Borrás. Estrategia zirkularretan hondakinen kudeaketan aditua.

13:00. Amaiera.

TOLOSA

GAZTE TOPAGUNEA

Kaleko arte euskaltzalea.

GAZTE IRAKURKETA KLUBA

18:00. Gazte Irakurketa Kluba Nadin Hussein Hernandezek gidatuta. Liburutegian.

DANTZA

20:00. *Shine* (Lasala). *Shine* arrakasta eta distira lortzeko ibilbideaz mintzo da. Pieza honetan begiak zabaltzen dizkiogu bizi garen aroan askatasunari buruz dugun ikusmoldeari. Askatasun horrek aske izateari uzten dio auto inposatua den neurrian, eta bere kabuz egiten du distira berau ospatzen dugunean eta gure erabakien erantzule egiten garenean. Leidorren.



KONTZERTUA

22:00. Ajeeb taldearen kontzertua. 10 euro. Bonberenean.

LARUNBATA

AZAROAK 18

ADUNA

GAZTE EGUNA

11:30. Herri jolasak.
14:00. Gazte bazkaria.
17:30. Toka txapelketa.
Ondoren. Elektrotxaranga.

AMASA-VILLABONA

TXAPELKETA

Ernaik antolatuta, frontenis-toka txapelketa.
09:30. Beroketa girotua.
10:00. Frontenis eta toka.
12:30. Luntxa eta sari banaketa.

AMEZKETA

AUZOLANA

08:00. Auzolana. Ondarreko langara doan bidearen egoera ikusita, hau txukuntzeko auzolana antolatu dute. Beratzeagako aparkalekuan elkartuko dira, eta taldeetan banatuta, ur erretenak egin, bide bazterretako sasi eta adarrak kendu eta oinezko bideen txukunketa egingo dute.

ASTEASU

TOPAKETA

09:30-12:30. Mundu bat Asteasun kulturarteko espazioaren barruan, hirugarren topaketa egingo dute, udaletxeko batzar aretoan.

KONTZERTUA

18:30. Iparreko kantak, Nordika dos-i taldearen kontzertua. Elizmendiko Santa Kruz ermitan.

BALIARRAIN

KONTZERTUA

18:00. Elaut Elorrieta kontzertuan.



BERROBI

FRONTENIS TXIKI

Berrobiko Ion Ander Izagirre Frontenis Txiki II gaztetxoentzat torneoa. 14 urte bitarte.

LH1-LH4 atzeko txokoan banaka. LH5-DBH2 aurrean banaka eta binaka. Azaroaren 18 eta 19an, 25 eta 26an eta finalak abenduaren 2an.

FRONTENIS TXAPELKETA

Berrobiko XXXI. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketa. Txapelketa egunak: azaroaren 18-19; azaroaren 25-26 eta finala, abenduaren 2an.

BIDANIA-GOITATZ

IKASTAROA

10:00. *Hondakinak kultur sareak sortzeko aitzakia* proiektuaren ikastaroa.

IKAZTEGIETA

HERRI KROSA

Ikaztegieta XXXII. Herri Krosa.

16:15. Herriko haurrak.
16:30. Helduak.

TOLOSA

BABARRUNAREN FESTA

06:30-12:45. XXVIII. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa.
08:00-12:45. Gure Kaiola elkarteak antolatuta, XXXV. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa.
09:00-14:00. Azoka berezia.
11:00. Trikitilariekin kalejira.
11:15. Erraldoiak.
12:00. Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eskutik, Tolosako babarruna jateko aukera.
12:45. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako sari banaketa.

13:30. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko sari banaketa.

14:30. Tolosako elkarte eta tabernetan babarrun jatea.

19:00. Kalean Txaranga.

22:00. Itzal taldearen kontzertua.

23:30. Jainekin Txaranga.

DIRU BILKETA

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarte Tolosako kaleetara irtengo da elkarteko pertsona boluntarioekin batera minbiziaren aldeko lankidetzak eskatzeko. Diru bilketa egingo dute Trianguloa plazan, Paseo San Frantzisko pasalekuan, Dama Berdean, Berdura plazan eta Eroskin.

GAZTE TOPAGUNEA

Globo txapelketa.

MUSIKA ZUZENEAN

17:00. Franxes DJ. 3 tabernan.

PAILAZOAK

17:00. *Pailazokeriak*: Txirri, Mirri eta Txiribiton. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen eskutik, euskarazko haur ikuskizuna. Leidorren.

HAUR IKUSKIZUNA

19:30. *Birakabareta*. Hurrei zuzenduriko antzerki emanaldia da,

AGENDA

Pailaztana Junior, Pailaztana Klowen taldearen, Numen Dantza Eskolaren eta Gupil Zoroak (Mauricio Garzon eta Iñigo Arroyo) bikotearen parte hartzearekin. Topic-en.

KONTZERTUA

22:00. Argazki bat behelainoan eta Modesto Newhouse. 10 euro. Bonberenean.

ZIZURKIL

TAILERRA

Garagardoa egiten ikasi.

TXAPELKETA

18:00. Gipuzkoako Harri Handien Txapelketa. Intxaur frontoian. Xabier Aranburu, Aimar Galarraga, Gari Garmendia, Imanol Royo, Jon Unanue eta Julen Diaz (gonbidatua).

IGANDEA

AZAROAK 19

ADUNA

AURKEZPENA

11:30. Plazan, Eskola Txikiak Jaia 2024 logo aurkezpena.
Ondoren. Pintxoak.
12:30. Loatzo musika bandaren emanaldia.

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

19:30. *Euli dantza.*
La cuerda teatroren antzezlan. Euskarazko bertsioaren estreinaldia. Getari Etxegarairen zuzendaritzapean. Maitane Perez eta Maider Lekunberriren aktoreekin. 6 euro. Gurea antzokian.

BELAUNTZA

ANTZERKIA

18:00. *Bonba bat naiz* antzerki emanaldia. Kultur etxean.

BIDANIA-GOITATZ

A25

Pelikula familian.

TOLOSA

KONTZERTUA

18:00. Peppermint Sextet taldearen kontzertua. 3 tabernan.

TOLOSALDEA

BIZILAGUNAK

SOS Arrazakeriak eta Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun sailak antolatutako, Bizilagunak egitasmoaren barruko bazkariak. Mahai istorioak da aurtengo leloa.

ASTELEHENA

AZAROAK 20

ALEGIA

MUSIKA ASTEA

18:30. Loatzo musika eskolaren musika astea. Ganbara. Kultur etxean.

IRURA

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEEN

NAZIOARTEKO EGUNA

16:30. Kalaka zurezko jokoak, haurrentzat. Nola babestu gure seme-alabak? Abusuen prebentzioa eta laguntzarako tresnak, tailerra gurasoentzat. San Migel plazan.

TOLOSA

ODOLA EMATEA

16:30. Tolosako odol emaileei zuzendutako hitzordua. Aldez aurretik txanda hartzea ezinbestekoa da: 943 00 78 85 edo 900 303 404. Kultur etxean.

BISITA GIDATUA


19:00. Bisita gidatua bi ahotsetako poema irakurketarekin lagunduta. *Muttertum.* Euskal emakume eskultoreak. Gaztelaniaz. Aranburu jauregian.

ZINEMA



VIDAS PASADAS

Larunbata
eta astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



O CORNO

Larunbata (19:30 eta 22:00)
eta astelehena (19:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



DORAEMON ETA DINOSAURIO TXIKIA

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.



ALIMAÑAS

Igandea
(19:30).
Tolosa, Leidor.



«Gure hitza mantentzeko gaitasuna erakutsi dugu, kalitatearekin»

JON ANDER ARTOLA ETA YERAY GASCON
HABI TALDEKO MUSIKARIAK

Villabonako Habi taldeak 'Ohartu' izeneko lan berria kaleratu du gaur bertan, hamar kantuz osaturiko diskoa; atzo aurkeztu zuten Arrasaten, eta gaur Ondarroan eskainiko dute publiko aurrean.

Leyre Carrasco

Aski ondo ezagutzen dute taldearen esentzia Jon Ander Artolak (Amasa-Villabona, 1993) eta Yeray Gasconek (Amasa-Villabona, 1993). Duela bost urte sortu zuten Habi taldea, eta denbora honetan hainbat lan kaleratu dituzte. Hirugarren lan luzea argitaratu berri dute, eta prest daude oholtza berriro konkistatzeko; izan ere, disko berria «inoiz baino indartsuagoa» dela diote bi billabonatarrek.

Hirugarren lan luzea kaleratu berri duzue. Berrikuntzarik gehitu diozue?

Jon Ander Artola: Soinuari dagokionez, aldaketa egon dela esan dezakegu, grabatu dugun moduagatik, batez ere. Beste lanetan grabaketa asteburu bakarrean egin dugu. Azken honetan, berriz, hiru tandatan grabatu dugu; lehena martxoan, bigarrena ekainean, eta hirugarrena uztailan. Gainera, kan-

tuak etapa horietan zehar sortzen joan gara. Adibidez, ekainean ez genituen hamar kantuek sortuta, lau kanta genituen.

Yeray Gascon: Gainera, ez dugu presiorik izan data horietara hiru kantuekin soilik iristeko. Gure helburua disko luzea egitea zen, aurreko lanak baino luzeagoa egin nahi genuen, aurrekoek zortzi kantu bakarrik baitituzte. Lau katuz osatutako EP bat eta Etxekalte taldearekin batera single bat ere kaleratu genituen. Hala ere, gure asmoa hirugarren lan luze bat kalera-tzea zen, eta ez genuen muga zehatz bat. Egia da bu-rua aurreko lanetan izan dugula, zer eta nola egin ge-nuen pentsatuz, baina lan berri bakoitzaren barruan kapa desberdinak daude.

Artola: Estiloak asko baldintzatu gaitu, nahiz eta ore-ka bilatzen saiatu garen. Soinu aldetik rockeroagoa da. Gitarrek presentzia handia daukate.

Hamar kantuk osatzen dute lan berria. Zeren ingu-ruan hitz egiten duzue?

Gascon: Aurrekoetan, adibidez, gorrotoaz edo minaz asko hitz egin genuen. Hemen ere badago, baina ba-daude alaiagoak diren beste gai batzuk ere, amodioa, esaterako. Gure egunerokotasunean bizitzen ditugun gauzen inguruan hitz egiten dugu. Diskoan badago kantu bat oso letra zaharra duena, hamasei urterekin idatzitako kanta bat da, garai hartan gauza bat zen eta orain buelta eman, eta beste emaitza bat izan du. Ez da gai zehatz bat duen diskoa, eta horregatik jarri diogu *Ohartu* izena. Izenak presentzia du, eta oroko-rran borobiltzen du diskoan jorratzen dena. Azkene-an, diskoaren asmoa mezu bat helaraztea da.

Aurrerapen kantu bat entzuteko aukera izan ge-nuen: 'Oinatzak'. Nolako harrera jaso zuen?

Artola: Egia esan oso ona. 2019an hasi gineneko en-tzunaldien zenbakiak aztertzen baditugu, eta zenba-ki horiek eta oraingoak parekatzen baditugu, irisme-na handiagoa da, eta oso pozik gaude. Kantu hori au-keratu genuen *single* formatuan ondo funtzionatuko zuelako; alaiagoa eta poperoagoa da. Gaur egun rock gogorak baino gehiago funtzionatzen duen formatua da, eta pozik gaude jasotako emaitzarekin.



Gascon: Eta bat datorrelako orain arte egin dugunare-kin ere. Gure lehen singlea *Badakit* (*Loratu*, 2018) izan zen, eta zentzu askotan single hori baino gogorragoa edo ilunagoa izan zitekeen. Bigarren diskoan (*Kolore-ak*, 2020) *Harri* ez zen diskoaren zentzua markatzen zuena, baina aukeratu genuen erritmoa markatu eta gorputzean mugimendua sortzen zuelako. Oraingo-an, *Oinatzak* diskoaren barruan zentzua du, baina desberdina eta poperogoa da. Erritmo gehiago du, eta horrek ere zentzua zuen aurretik egin dugun guz-tiarekin. Harrera ona izan du, eta gure estrategiak, txarrera edo onera izan, funtzionatu egin du.

'Lilura' kantua ere aurretik entzun eta ikusteko au-kerak izan dugu.

Artola: Hori etxean egin genuen. Nagore Arinek zu-zendu, grabatu eta muntatu du bideoa. Villabonako etxe zahar batean eta industriaguneko pabiloi bate-an grabatu genuen. Bertan, liluraren inguruan hitz egiten dugu.

Zer da lilura?

Gascon: Lilura oso subjektiboa da; lilura sentitzearen zailtasunez edo bigarren aukerez. Gai asko jorratzen



dira, baina esaldi bat asko errepikatzen da bereziki: «Lilurari aipamen bat egin ahal izateko, gorroto gaituztenak isilarazteko». Lilura sentitzeko jartzen dizki-guten oztopoei egiten die erreferentzia.

Nola helarazi duzue mezu hori bideoklipean?

Gascon: Lilura paperezko lore bat izatea pentsatu genuen; denbora guztian gure eskuetan edo toki itxietan edo hautsietan egonez. Bideoklipean lore hori erre egiten dugu, nolabait esateko, lilura erre egin dela.

Orain arte bezala, zuek ekoitzi duzue, ezta?

Artola: Formatua ia betikoa izan da; Yerayk kantua idatzita ekartzen du gitarra eta ahots melodia batekin, eta gero lokalean forma ematen diogu. Oraingo honetan, produkzio aldetik, besteetan baino askoz gehiago landu ditugu kantuak estudioan.

Gascon: Disko hau modu irekiago batean joan da estudioara. Beste lanetan, adibidez, Jon Anderrek eta nik kanta itxi egiten genuen, eta estudioa joaten ginenean Victorrek produkzioko kapa gehitzen zion. Esaterako, gitarraren soinuak definitzen zituen edo beste soinu batzuk gehitzen zizkion fondoan. Orain-

goan, berak esku hartze handiagoa izan du, kantuak ez dizkiogulako hain itxiak eman. Kantuaren egitura eman diogu, baina gero hiruak batera eseri gara, kantua jo dugu, jo dugun hori ondo entzun egin dugu, eta nola landu ikusi dugu; tarteak, bateriaren filoak eta gitarraren marrazki bat egin dugu, besteak beste.

Artola: Hori da, zati asko estudioan sortu dira; izan ere, denbora aldetik besteetan baino lasaiago ibili gara. Astebete egon gara estudioan grabatzen; hau da, estudioko denbora hirukoiztu dugu. Horri esker soinua gehiago landu dugu; azken emaitzan nabari da.

Kolaboraziorik egin duzue?

Gascon: Pertsona baten begiei buruz hitz egiten du *Berde* kantuak. Amodio kanta bat da, kanta polit bat eta indar handia hartu zuen. Nik Jon Anderri maketa intimo bat bidali nio. Lokalean grabatzen hasi ginen, eta kantuak hartu zuen forma asko gustatu zitzaigun. Gure maketa entzuten ari ginela, kantu hori nolabait indartu egin behar genuela pentsatu genuen, beste ahots bat behar zuen. Beraz, nire bikotea den Nago-reri proposatu nion berak abestu zezan; izan ere, kantuak bere begien inguruan hitz egiten du. Beldur handia sartu zitzaion, baina negoziazio luze baten ostean, onartu egin zuen.

Beraz, kolaborazio berezia da.

Artola: Kolaborazio berezi bat da, mezua dezentez indartsuagoa da, kolaborazio hori etxean geratzen delako, beste behin.

Gascon: Kolaborazio bat egiten duzunean, kantu horri nolabait beste maila bat gehitu nahi diozu, beste artista horrek kantuari beste zerbait gehitu diezaio-keela uste duzulako, edo besterik gabe promozioan laguntzen dizulako. Esaterako, ez da berdina Anari-ekin edo Sara Zozayarekin batera abestea, kanta hori bi publiko oso desberdinengana iritsiko delako. Guk hori alde batera utzi dugu oraingoan, oso interesgarria iruditu zitzaigulako kantuak aipatzen duen pertsonak berak abestea.

Emaitzarekin pozik?

Artola: Bai. Gainera, *puntazoa* izan zen. Yerayk bazekien Nagorek nola abesten zuen, baina Victorrek eta

nik ez genekien. Estudiora etorri eta lehenengo aldiz abesten entzutea berezia izan zen. Gainera, lehenengo gure musikan emakume baten ahotsa sartu dugu; kontrastea polita da.

Biok diseinatzaile grafikoak zarete. Portada ere zuek sortu al duzue?

Artola: Bai, etxean egin dugu. Diskoaren *Ohartu* izena hartu eta «ohartu zaitez» esaldiarekin lotu genuen; hau da, «ireki begiak, eta ohartu guk inguruan daukagunaz; egiten duguna egiteagatik dugun zortezaz». Baina nola transmititu hori? Bada, begi baten bidez. Diseinuaren ardatza begi bat izatea indartsua zela iruditu zitzaigun. Azkenean, portada nahiko abstraktua geratu zaigu.

Zer esan formatuaren inguruan?

Artola: Oraingoan biniloa ez ezik, diskoa ere kaleratu dugu. Lan berri honetan *topera* joan eta bi formatuetan kaleratu dugu.

Biniloak ondo funtzionatu izan du?

Artola: Gaur egun musika nola kontsumitzen den ikusita, oso zaila da fisikoki ondo funtzionatzea, baina guri beharrezkoa iruditzen zaigu musika fisikoki kontsumitzea, bai etxean, kotxean edo edozein lekutan, plataforma digitaletik kanpo. Horrez gain, biniloa edo diskoa fisikoki eskuetan edukitzea, taldeak egin-dako lanari garrantzia ematea da.

Gascon: Baita guretzat ere. Zuk zeuk zure disko bat eskuetan izatea sekulakoa da. Gogoan dut lehen diskoa kaleratu genuenean, amets bat betetzea izan zela. Gainera, biniloak badu gauza oso indartsu bat, zure musika saltzeaz gain, nostalgia puntu bat ere saltzen baituzu.

Nolakoa izan da diskoa berriaren grabaketa?

Gascon: Guk bagenekien aurten zerbait grabatu nahi genuela baina ez genuen ezer. Urtero zerbait ka-

«Gure proiektua da eta guk aukeratzen dugu nondik jo, hori baino gauza hoberik ez dago»

JON ANDER ARTOLA

leratu dugu, eta aurten ere zerbait grabatu nahi genuen, baina Victorrek estudioan tokirik ez zuela esan zigun, ez zegoen datarik. Beraz, Elkar disketxeari proposamen bat egiteko beharra sentitu genuen. Denborarekin genbiltzanez, hiru etapatan egiteko proposa-

mena bota genion diskoetxeari. Denbora edukita ere, presio handia izan dugu. Presiopean funtzionatu dugula jakitea oso interesgarria izan da.

Artola: Sormen prozesua zailagoa izan da. Beste diskoetan ez bezala, gu bion artean tentsio gehiago egon delako kanta sortzeko garaian. Besteetan kanta nahiko erraz sortzen genituen, agian ordura arte soinua zehaztu gabe genuelako. Behin kontzertu batzuk emanda, eta kanta batzuk sortuak dituzunean, nibel hori nolabait mantendu egin nahi duzu, eta horretan ere hobetu nahi genuen. Kanta batzuk sortzea infernua izan da. Nola edo hala aurrera atera beharra genituen, eta azkenean, atera egin ditugu.

Gascon: Horrek balio oso polita du, oso espontaneo delako, oso momentukoa. Gure kanta zuzenean ez dira diskoan entzuten diren zehatzak, eta horrek ere balio bat du. Normalean, zuzenean gogorragoak izaten gara, azkarragoak, beste forma bat ematen diegu. Kantua grabatzen duzun unean hil egiten da ezin duzulako eraldatu, hori baita betiko geratuko dena. Gero, zuzenean, parte bat aldatu edo beste zerbait gehitu arren, kantua grabatzen den unean hil egiten da, eta horrek beldur handia ematen du, denbora asko pasa duzulako borrokan kantu bat egiteko.

Artola: Beste diskoetan grabatuta geratu diren kantuei, zuzenean indar gehiago ematen saiatu gara. Kasu honetan, kontrakoa egin dugu, hain gogorra eta indartsua da diskoa, eta hain produzituta dago, non asko kostatzen ari zaigun zuzenekoetara eramatea.

«Kantua grabatzen den unean hiltzen da, eta horrek beldur handia ematen du»

YERAY GASCON



Prozesua luzea izan arren, zer balorazio egin duzue?

Gascon: Orokorrean, aurreko esperientziak baino begierriagoa eta interesgarriagoa izan da. Besteetan lan asko egin dugu, lan guztien estiloa definitzeko denbora gehiegi pasatu dugu, gero bi egunetan dena grabatu ahal izateko. Orain margen handiagoa izan dugu, esaterako, aldaketak egiteko.

Bost urte bete dira Habi sortu zenetik. Zein balorazio egiten duzue?

Artola: Musika sortzen jarraitzen dugu, kontzertuak egiten jarraitzen dugu, egiten duguna jendeari gustatzen zaio, gure inguruak disfrutatzen du, proiektu autosufizientea da, lagun asko egin ditugu, jende asko ezagutu dugu, Euskal Herriko musika eszenan sartu gara nolabait, eta sekula ezagutuko ez genituen talde asko ezagutu ditugu. Orokorrean, balorazioa oso ona egiten dugu.

Gascon: Zorte handia izan dugu, baina asko borrokatu dugulako. Gure txikitasunean ezagun gara. Ez gara beste talde batzuetatik sortu, eta ez gara musikaz bizi, baina zorte handiz esan dezakegu gaur egun Elkar diskoetxearekin kontratu diskografiko bat dugula, eta Bidean Produksio etxearekin egiten dugula lan. Hala ere, hori ez da inongo momentuan gure helburua izan.

Artola: Urtero lan berri bat kaleratzea ez da ohikoa izaten, eta guk horretarako zortea izaten dugu, baita noiz

atera aukeratzeko ere. Kontzertu gehiago beharko bagenitu ate joka hasiz gero, lortuko genituzke. Ez da gure beharra, guk aukeratzen dugu nondik jo, eta hori baino gauza hoberik ez dago.

Gascon: Horri esker, gaur hemen gaude, disko berri batekin, lasai. Pozik gaude inguruan jendea dugulako eta horrek lasaitasuna ematen digu.

Lan berria atzo aurkeztu zenuten lehenengoz Arrasaten, eta gaur Ondarroan izango zarete. Data gehiagorik?

Abenduaren 15ean Lazkaoko Malantza tabernan izango gara; abenduaren 22an Donostiako Dabadaban, Letagin taldearekin batera; urtarrilaren 26an Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, Liherrekin batera; otsailaren 6an Gernikako Astran, Sara Zozayarekin batera; otsailaren 23an Amorrioko Burubio kultur elkartean; otsailaren 24an Azpeitiko Sanagustin kulturgunean, Cala Ventorekin batera; eta martxoaren 9an, berriz, Bermeoko Nuntxakun, Etxekalerekin batera.

Aurrera begira zein beste erronka dituzue?

Artola: Aurreko diskoekin ez ditugu kontzertu asko jo. Askotan sentsazio hori izan dugu; hau da, disko bat atera eta ez dugula behar bezala aurkeztu. 2024. urtean ahal ditugun kontzertu gehien emateko helburua ezarri dugu. Musika aldetik, elektronika toke batzuk atera nahiko genituzke.

Beraz, Habi taldeak etorkizunean, elektronikara egingo du salto?

Gascon: Gerta ez daitekeen zerbaiten *spoiler*-a da, baina egia da buruan proiektu oso indartsu bat daukagula. Oraindik ezinezkoa da martxan jartzea, disko berria kaleratu berri dugulako, eta orain gure helburua honi ahalik eta indar handiena ematea delako. Disko honekin daukagun helburua ondo eta lasai aurkezte da, baita Euskal Herritik kanpo ere. Gure musikak beste toki batzuk ezagutzea interesgarria da. Musika jaialdi handi batean jotzea ez litzateke txarra izango.



Elkarrizketa
osoa
ataria.eus-en



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Jasotzera egingo du. Egunsentian hodeiak ugariak izango dira eta oraindik ezin da baztertu tantaren bat botatzea. Hala ere, oso gutxi botako du. Goizeko lehen ordutik aurrera ateri geratuko da, eta ostarte zabalak irekiko dira orduetara aurrera egin ahala, non arratsaldean goi-hodei fin batzuk salbu, giro ederra nagusituko den. Haizeak goizean ipar-mendebaldetik joko du, arratsaldean ipar-ekialdetik finkatuko delarik. Temperatura jaitsi eta nekez gaituko ditu 14-16 graduak.

LARUNBATA

Giro bikaina. Goizean behe-hodeiren bat edo beste ikusiko bada ere, ostarte zabalak izango dira nagusi, eta behin behe-hodeiak desagertu ostean, zeru urdina eta eguraldi eguzkitsua nagusi izango dira. Azken orduetan goi-hodei batzuk agertuko dira, baina inolako ondoriorik ekarri gabe. Hego-haizea ibiliko da egunaren lehen zatian, bigarrenetan iparraldekoa nagusituko delarik. Temperatura nabarmen igoko da, 20-22 graduan joaz goia.

IGANDEA

Giro ederra. Goizean goi-hodei fin batzuk salbu, eguraldi eguzkitsua eta ederra izango dugu. Arratsaldean zehar, erdi eta goimailako hodeien presentzia areagotuko da, baina ez dute bestelako ondoriorik ekarriko, ateri eutsiko dio eta giro lasaia izango da. Haizea aldakor ibiliko da, beti ere, hego-ekialdekoa nagusituz. Tenperaturak behera egingo du.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

17€

51€

56€

Atarikideek

13€

36€

42€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

AZAROAK 17, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3.
943 67 09 15.

AZAROAK 18, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo, 2.
943 67 01 28.

AZAROAK 19, IGANDEA

AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

AZAROAK 20, ASTELEHENA

IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.


atarikideen abantailak



**EHUN
FISIOTERAPIA**
%10eko
deskontua



PANTTA
Ardoa opari



**TXINDOKIKO
ITZALA**
%10eko
deskontua



SOLUMOBEL
100 euroko
deskontua



SABERRI
%15eko
deskontua



**EIZMENDI
ANAIK**
%15eko
deskontua



**GARAZI
LORADENDA**
Lore sorta
opari



ATARIA
Deskontu
bereziak



BASAJAUN
Deskontu
bereziak



**MULTIOPTICAS
TOLOSA**
%15eko
deskontua




**ZAP!
BIDEOGINTZA**
%25eko
deskontua



**OREXAKO
OSTATUA**
%5eko
deskontua



Komertzio, taberna edo enpresa bat duzula eta
abantailak eskaini nahi dizkiezula Atarikideei?
Jarri gurekin harremanetan: publi@ataria.eus



ataria.eus/kideak

BLACK
FRIDAY

R.P.S. 91/20

2mó 89€
lehen 99€
erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

multiópticas

www.multioplicas.com



943 69 84 70
San Frantzisko, 23
TOLOSA



eskatu hitzordua
WhatsApp
bidez